

## **2008-2009ko Logistika integraleko Aditu ikastaroko itxiera ekitaldia**

2009/07/20

Maiatzaren 29an Logistika Integraleko aditu ikastaroaren itxiera ekitaldia izan zen Arabako Merkataritza Ganberako aretoan Gasteizen eta bertan, parte-hartzaileen proiektuak aurkeztu ziren.

Arabako Merkataritza Ganberak antolatutako ikastaroaren X. edizio honen Zuzendaritza Teknikoa eta Koordinazio lanak ULMA Handling Systems-eko aholkularitza unitatea eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoko antolakuntza sailaren esku egon dira. Itxiera ekitaldia irekia izan zen eta gonbidatuak izan ziren enpresetako logistika eta produkzio arduradunak bertaratu ziren.

Jardunaldian, ikastarora bertaratu ziren enpresa industrial eta logistikoetako produkzio, banaketa eta horniduren arduradunek beraien enpresetan garatutako proiektu logistikoen aurkezpena eta defentsa egin zuten.

Graduondo hau, hornidura katearen kudeaketa printzipioak aplikatuz eta honi lotuta dauden metodologia teknikoak erabiliz, proiektu logistikoak arrakastaz garatu eta enpresako ikuspegia hartu nahi duten profesionalentzat zuzendua dago.

